



Jardueren Memoria

Euskal Herriko Polizia Ikastegia eta 2011. urtea.

Euskal Herriko Polizia Ikastegiak jarduera handia izan du 2011. urtean.

Izan ere, 2011n, Ertzaintzaren XXIII. Promozioa antolatu da, eta 221 agentek gainditu dituzte hautaketa eta prestakuntza. Horren ondorioz, azkenean, 8.000 ertzain jardunean izateko helburua lortu dugu, eta hori, hain zuzen, Sailaren helburu estrategikoetako bat zen.

Halaber, Ikastegiak ahalegin handia egin du Ertzaintzaren ia kategoria guztietara igotzeko hautaketa-prozesuak martxan jartzeko: lehen mailako agente, ofizialorde, ofizial, komisariorde, komisario eta intendente. Horrekin batera, Bide Segurtasunaren eta eskolten arloetako espezialitateak ere abiarazi ditu.

Era berean, 2011n, Ikastegiak betiko intentsitateaz eta dedikazioz antolatu ditu Euskal Udaltzain Kidegoentzako hautaketa-prozedurak, jarraipen-lanak eta prestakuntza-jarduerak.

2011n, Larrialdien arloko prestakuntza benetan hasi da Ikastegian. 2010ean, prestakuntza hori pixkanaka garatzen hasi zen, baina 2011n prestakuntza-jarduera ugari zabaldu dira, besteak beste, suhiltzaileei (suhiltzaile-kidegoan sartzeko lehenengo ikastaroa antolatu da Ikastegian) eta Babes Zibileko borondatezko langileei zein langile profesionaleri zuzendu zaie.

Ikastegian hainbat ekitaldi garrantzitsu bizi dugu: esate baterako, Ertzaintzaren II. Eguna, Memoriaren Eguna edo XXIII. Promozioiko ikasleei kredentzialak emateko ekitaldia. Beste alde batetik, jardunaldiak ere antolatu dira, besteak beste, Esku-hartze Polizialen Nazioarteko Jardunaldiak, Berdintasun Foroa, Giza Eskubideen Alorreko Polizia Jardunbide Egokiak, bai eta mota guztietako ekitaldiak ere, hala nola Arkauteko I. Tiro Txapelketa, etab.

Horrez gain, Ikastegiak hainbat mintegitan parte hartu du, esate baterako, Europako polizia-agenteen prestakuntzari buruzkoan, Bruselan antolatuan; bai eta mota askotako biltzarretan ere.

2011. urtean, bereziki, bi gertaera nabarmendu behar dira: batetik, Euskal Unibertsitate Publikoaren lankidetzarekin Segurtasunaren eta Larrialdien Kudeaketako

Gradua abian jarri izana (harrera ezin hobe izan du); eta, bestetik, garrantzitsua oso, Ertzaintzaren eta Euskal Udaltzain Kidegoen prestakuntzaren eta hezkuntza-sistemako teknikari tituluaren arteko baliokidetasuna onartu izana.

Baliokidetasun horren bitartez, Arkauteko Ikastegia erreferentziazko erakunde bihurtu da, herri-segurtasunari buruzko prestakuntzaren arloan.